

## *Euskalinguaren aurkezpena*

Irakurle,

Begi aurrean duzun *Euskalingua* aldizkaria Mendebalde Kultura Alkartearen ekimenetik sortu da. Hizkuntz ondarea bildu, ikertu eta zabaltzea helburu izanda, hizkuntzaren inguruko ikerketa-arlo ezberdinak batuko dituen aldizkari zientifikoa argitaratuko dugu. *Euskalinguak* hiru jakintza arlotako lanei bidea zabaldu gura die: batuketaren arloan hizkuntz ondarea, ahozko literatura, terminologia, corpusak; ikerketaren arloan hizkuntzalaritza, antropologia linguistikoa, hizkuntzaren soziologia; aplikazioaren arloan, euskararen munduan egiten diren aplikazio praktikoek berri eman gura dugu, hizkuntza eta teknologia, hizkuntz plangintza, hizkuntzalaritza aplikatua, itzulpengintza eta didaktika arloetan. Labur esanda, *Euskalinguak* euskal hizkuntzaren inguruan dabilzan aditu guztientzat lekua eskaini gura du, alor ezberdinetako ikerlarien ideiak eta iritziak trukatzeko foroa eskainiz eta disziplinarrekotasuna bultzatuz. Sarri jakintza arlo ezberdinetan jarduten dugulako ez dugu elkarren berri izaten eta gure ikerketa edo esperientziara murrizten gara. *Euskalinguan* arlo ezberdinen gaineko artikuluak irakurtzeko aukera izango dugu, beti ere euskal hizkuntza hizpide izanda.

Arlo teorikoari dagokionez, teoria eta metodologia ezberdinetan jarduten duten ikerlarien lanek lekua dute *Euskalinguan*. Eztabaida teoriko eta metodologikoen garrantzia azpimarratu behar da eta honetan ere aldizkariak euskal komunitate zientifikoari ekarpen handia egitea espero dugu.

Bestalde, aldizkari hau bultzatzeko beste helburu batzuk ditugu: batetik, euskararen ikerketan bai hemen eta bai atzerrian jarduten dutenen arteko eztabaida akademikoa ahalbideratzea; bestetik, ikertzaile gazteei euren ekarpenak zabaltzeko lekua eskaintzea. Horretarako, euskaraz idatziriko artikuluei lehentasuna emanda ere, batzutan ingelesez, gazteleraz edo

frantsesez idatzitako lanak onartuko ditugu, egingo duten ekarpen teoriko edo metodologikoa gogoan izanda. Gainera, ikertzaile eta aditu gazteei gonbidapen berezia egin gura diegu euren lanak bertan argitaratu ditzaten.

*Euskalingua* begi aurrean duzula esan dugu arestian eta ez esku artean, hori da eta aldizkari honen ezaugarri deigarrienetako bat. Euskarari buruzko ikerkuntza teknologia berrien bidez euskal eta nazioarteko komunitate zientifikoari errazago zabaltzeko asmoz, aldizkari hau sarean eta euskarri elektronikoan argitaratuko da, AHOLABek kudeatuta. Euskarri teknologiko hauek modu probetxuzkoagoan lan egiteko bidea ematen digute: zabalkunde erreza dute, atzerrira ere arin baino arinago ailegatzen dira, eta bilaketak ahalbideratzen dituzte, abantaila batzuk baino ez aipatzeko. Beste zenbaki bat sareratu dela argitaratu ahala jakin gura izanez gero harpidetza elektronikoa egitea baino ez duzu eta emailaz hartuko duzu haren berri.

*Euskalingua* urtean birritan kaleratu/sareratuko da. Euskal hizkuntzaren ikertzaile eta aditu guztiei gonbitea luzatu gura diegu artikuluak bidal ditzaten. Irakurleok gustura irakurriko duzuela eta *Euskalinguak* hizkuntzaren inguruko ikerketan ekarpen handia egingo duela espero dugu. Hala izan bedi.

*Esti Amorrortu*

*Iñaki Gaminde*

*Iñaki Sarriugarte*

*Maribi Unamuno*

*Argitalpen batzordekideak*